

Gripeari eta haren prebentzioari buruz jakin behar duzuna

- Gripea urtero agertu ohi da neguan. Birus batek sortutako gaixotasuna da, eta horrek, katarroaren sintomez gain (eztula, sudurreko mukien areagotzea eta eztarriko mina), ondoez orokor bizia, gihar eta artikulazioetako oinazea eta sukar handia sorrazten ditu.
- Gripea pertsonen artean, airearen bidez, listuaren tanten bidez edo eta eztula egitean, hitz egitean edo doministiku egitean kanporatzen diren sudurreko jariakinen bidez kutsatzen da.

Gripearen aurka babesteko modurik eraginkorrena urtero txertoa jartzean datza.

- Txertoa prestatzeko erabiltzen diren birusak urtero aldatzen dira, nazioarteko ikuskatze-jardueretan eta urte jakin batean aktibo izango diren birus moten eta anduien estimazioetan oinarrituta.
- Txertoak gripearengandik babesten zaitu, jarri ondoren bigarren aste inguruan hasita urtebetera arte. Hortaz, babesa mantentzeko, urtero txertoa jartzea.

Gripearen aurkako Txertaketa-kanpaina



Gripea eta zu

Gripea bilakabide akutua duen gaixotasuna da; 2 egun inguruko inkubazio-aldia du, eta 1 eta 7 egun bitarteko ospitaleratzea.

- Eragin-maila desberdinak egon daitezke, bilakabide arinetik hasi eta pertsonen bizitza arriskuan jar dezaketen patologia gehigarriek sortutako arazoetara iritsi arte. Arrisku-faktoreak erabakigarriak izango dira gripeak pertsona bakoitzarengan izango duen eraginean.

Ez utzi gripeak zure bizitza kalte dezan

- Txertoa da gripea saihesteko giltza.
- Txertoa jartzea norbere burua kutsatzea saihesteko neurri bat baino askoz gehiago da. Izan ere, zurekin bizi direnen babesean datza, bai eta lankideekiko erantzukizun-konpromisoan ere...

Kontuan izan!

Gripea eta familia

- Birusaren kutsatze-gaitasun handiak gripeak jotako gaixoen artean eta senideen artean kutsatzeko aukera ugari izatea eragiten du. Gripea berehala hedatu ohi da neguan zehar sasoiko izurriteen moduan.

Zure osasuna babestuta, zure familiarena ere babestuko duzu



- Zure osasuna babestuta, familia osoaren osasuna ere babestuko duzu. Pentsatu al duzu zure osasunaren erantzule izanda, ez duzula zeure burua bakarrik babesten, baizik eta zure inguruko guztiena ere?

Txertoa jartzeko erabakia zure esku dago

Gripea eta lana

Laneko absentismoaren arrazoi nagusietako bat gripea dugu neguan zehar, enpresaren antolaketan eta errendimenduan desoreka larriak sorraraziz.

- Urteak joan eta urteak etorri, aipatutako hilabeteetan zehar, gripeak sortzen dituen laneko bajen ondorioz, enpresaren zerbitzuen kalitatea murrizten da.

Zure osasuna babestuta, gainerakoena ere babestuko duzu

Txertoa jarriz gero, gripea saihesteaz gain, zure laneko jarduera eta lankideen osasuna babesten duzu. Txertoa jartzean, lan-inguruarekiko konpromisoa eta solidaritatea berresten duzu.

